



Jose Ignazio Ansorena

◆ TXISTULARIA

Sarean

BI GAZTE JATOR etorri zaizkit, Sare mugimendukoak, euskal preso politikoen arazoaz nire iritziak entzute-
ra. Bi ikuspegietatik erantzun diet: nola desio nukkeen
eta nola uste dudana joango dela.

Euskal herritar gehienok nahi genuke preso
batzuek berehalakera ateratzea, inoiz barruan ez
zutela behar irizita, eta beste guztiak pixkana askata-
sunerako bidean ipintzea, bitartean
hurbileko espetxeetara ekartzen
dituztelarik. Gure historiaren orrial-
de beltz hori erarik onenean eta
gupidaz pasa nahi dugulako.

Nola uste dudana joango dela?
Espainiako Gobernuak eskuen
artean benetako bakea bideratzeko
probestuko ez duen aukera duela
uste dut. Bikingoek zapalduetako
etsaiaren burua moztu eta harro era-
kusten zuten erabateko garaileak
zirela frogatzeko. Horixe Espainiako
Gobernuak. Hainbeste aldetatik
likiskeria darien zirrikituak agertu
zaizkion Gobernuak hementxe du
burua altxatzeko eremu ia bakarra.

Euskal Herrian ez bezala, Espainian nahikoa ongi
ikusia.

Sare mugimenduak liburuxka argitaratu du eta
zabaltzeko gonbitea egin. Bertan lau artikulu labur.
Castillo Suárezek presoak laguntzeko sarea trinko-
tzea nahi luke, horri zor zaio bere aburuz orain arte
sakabanaketari aurre egin ahal izana. Igor Elortzak

eta Jule Goikoetxeak xehetzen dute dispertsioak
nolako bidegabekeriak dakartzen. Eta Iñaki Lasaga-
basterrek –besteek ere alderdi hau aipatzen dutela-
rik– Europa eta Espainiako legedian oinarrituta,
sakabanaketa legearen kontrakoa dela dio.

Nik ere, hainbat aldetatik –senitartekoak, adiski-
deak, ikasle ohiak, lankideak...– dispertsioaren
drama gertu sentitu dut. Liburu-
aren diskurtsoan, baina, ez dut
ekarpen eraginkorrik ikusten. Zein
krudela den zabaltzea ongi dago,
inor konturatu ez bada. Legearen
aldetiko diskurtsoak eztabaidaga-
rriak gertatzen zaizkit, muturreko
kasuetan (gaixo terminalak...) ez
bestetan, espetxe gutxitan euskal
presoak batzuek euren erabilpen
politikoa eragin lezakeela arazoitu
baitezake juridikoki Espainiako
Gobernuak.

Gobernu zintzoak aukerak balia-
tu behar ditu arazoak ahal bezain
azkar eta ondoen bideratzeko.
Horixe du eginkizun. Eta horrela

exijitu behar diogu Espainiako edo Frantziako edo-
zein gobernuri. Ezker abertzale ortodoxoari eskatu
behar zaion bezala presoak iraganen
preso mantentzen ez jarraitzea. Beste
guztia literatura da, zoritxarrez ez ona.

Ez gaitezen sare zaharretan katrami-
latu. ■

*Nik ere, hainbat
aldetatik
dispertsioaren
drama gertu sentitu
dut. Sare
mugimenduak
argitaratutako
liburuaren
diskurtsoan, baina,
ez dut ekarpen
eraginkorrik ikusten*



WWW.EMONMUSIKA.COM

EMON "SUA"
HIRUGARREN DISKOA SALGAI
— JAI ERRITMOA GOITIK BEHERA! —

KONTRATAZIOA IREKITA: 618 072 076



baga-baga musika ideiak
telef. 618 072 076 / 026
www.baga-baga.com / info@baga-baga.com